


Turismoaren aldeko jauregia



**NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA**

Donostia, 1865. Hiriko harresiak bota eta bi urtera, Gipuzkoako Ingeñariaren Elkarteak memoria bat idatzi zuen, badiako ezkerreko sarrera, Igeldo eta Santa Klara artekoa, ixteko proposamena jasotzen zuena. Modu horretan, badia portu handi bat izango zen eta ekimenak hiriaren merkataritza izaera izugarri indartuko zuen. Aukera hori ia 70 urtez egon zen mahai gainean; hainbat belaunalditako donostiarrek gogoko zuten proiektua, baina arazo bat ikusten zuten: superportuak hondartzei kalte eragingo zien.

Bestela esanda, merkataritza edo turismoa lehenetsi behar zuten. Eta Espainiako errege familia izan zen bigarrenaren aldeko hautua behartu zuena. XIX. mendean erdialdean, Isabel II.a erreginari itsasoan bainuak hartzeko gomendatu zioten eta, horretarako, udaldiak Donostian pasatzen hasi zen. Eta 1885ean, Isabelen seme Alfontso XII.a hil zenean, alargunak, Maria Kristina Habsburgo-Lorenakoak udan gortea Madrildik Donostiara aldatzea erabaki zuen. Baina horretarako Errege Landa Etxe bat behar zuten. Erreginak badiari begira zegoen 80.000 metro koadroko hazienda bat erosi zuen, eta jauregia eraikitzeko proiektua Ralph Selden Wornum arkitekto ingelesari eskatu zion 1889an. Proiektua Jose Goicoa arkitektoak gauzatu zuen arren, Miramar jauregiak Selden Wornumek eman zion estilo ingelesa izango zuen.

Erreginarekin batera gortesauk ere uda Donostian eman behar zuten, no-



L.L./GIPUZKOA KULTURA

bleziako kideak Miramarren inguruan, nagusiki Ondarretan beren udako jauregi eta etxeak eraikitzen hasi ziren. Eta eraikin horiek ugaltu ahala, Donostiako merkataritza-portuaren ideia lausotuz joan zen.

Maria Kristina 1929an hil zen, eta jauregiak ez zuen luzaroan iraungo Alfontso XIII.a semearen eskuetan; 1931n Errepublikak jauregia desjabetu eta udalaren eskuetan utzi zuen. Francok itzuli zion jauregia errege familiari, 1958an, zehazki Joan Borboikoari. Azkenik, 1972an udalak Joani erosi behar izan zizkion jauregia eta inguruko lurrak -edo jabetzaren barruan geratzen zire-

nak behintzat, lurren erdiak ordurako salduak baitzituen Borboiak-.

Azken hamarkadatan hainbat erakunderen egoitza izan da Miramar: Eusko Ikaskuntza, Musikene, EHuko udako ikastaroak... Eta horretarako hainbat eraberritze lan egin behar izan dituzte. Esaterako, 2001ean, Musikenerako ikasgelak prestatzeko lanak egin zituzten. Eta orain, 2024an beste egokitze lan batzuk abiatuko dira jauregian; Eusko Jaurlaritzak 1,2 milioi euroko aurrekontua bideratuko du horretarako. Eta Miramar jauregiak baztertutako merkataritza-izaeraren ikur izaten jarraituko du, monarkiak turismoaren alde egin zuen hautuaren ikur. ●



NIKITA GOLOVANOY

Gotorlekurik zaharrena

Siberiako taigan duela 8.000 urteko gotorlekua topatu dute Berlingo Freie Universität-eko ikerlariak, inoizko zaharrena. Gotorlekuak Iraultza Neolitikoarekin batera iritsi zirela uste izan da luzaroan, nekazaritzak komunitateak egonkortzea ekarri zuelako. Baina duela 8.000 urteko Siberiako komunitateak ehiztari-biltzai-

leak ziren, nomadak izan ohi direnak. Zerk bultzatu zituen, orduan, sedentarismora? Ikerlarien lehen hipotesia da oso eremu emankorra zela eta, beraz, bertako biztanleek ez zutela ez mugitzeko ez nekazaritza garatzeko beharrik izan komunitatearentzako elikagaiak eta bestelako baliabideak eskuratzeko. ●